



Eman hegoak euskarari



Aldiberekotasunak 2022ko euskal poesian

Geroago eta garbiago daukat euskal edizioaren eremuan, urtea, aro bitan partitua eta berezia ageri dela

JON KORTAZAR



2 022ko urtean euskal poesien alorrean bideak zeharkatu egin dira.

Inork ez daki nola eta zergatik, baina ispilu joko eta ezusteko ederrak izan dira iazko poesien bidean. Kointzidentziak beti dira ezustekoak, eta hainbat ezuste izan ditugu gure historia txikiaren mundu honetan.

Askotan gertatu ohi den gisa, gure edizio mundua bitan banatu da. Uda aurreko egunetaraino luzatzen dugun urte hasieraren aroa eta Durangorako argitaratu diren liburuen sasoi. Kontua da lehen aro horretan era bateko poesia liburua agertu zirela iaz, eta beste era batekoak Durangorako.

Emakumeak eta hasiberriak

Hasi gaitzen historiarekin. Eta honek dio urtearen hasieran lau emakumeren poesia liburua argitaratu zirela, eta beste bat gehiago Durangoko mendiek kulturari arnasa ematen diotenean. Bost guztira, bostak emakumeak, eta bostak 1990etik aurrera jaiotakoak.

Egin dezagun zerrenda: Lizar Begoña (1996) 'Gepardo japoniarra' (Susa), Elena Olave (1997) 'Keinura itzuli' (Susa), Izaskun Igoa Jaimerena (1995) 'Hotza bazkatzen' (Balea Zuria), Iosune de Goñi (1993), 'Gorputz baten aztarnak elurretan' (Bermingham). Eta Durangoko Azokarako, berriz, Bea Chiviteren

(1991) 'Zeozer gaizki doa' (Pamiela). Azken hori dugu beternoena, eta, oker ez banago, hau xe du bosgarren liburua. Zerrendako lehen bi idazleek beren bigarren liburua argitaratu dute orain, eta Igoak eta de Goñik lehena.

Berriak gure letren mundutxoan. Bitxia da, baina 2020aren inguruan euskal poesia mundua idazle gazteen faltan zegoen. Baina badirudi epe laburrean poeta berrien agerpena azkartzen ari dela gurean.

Gizonezkoak eta eskarmentatuak

Jarrai dezagun historiarekin. Udagoiena heldu zenean, eta

Gaztelu poetari gertatu zitzaion moduan, «baratz-ikuspegia suntsitzen eta, onen orde, [...] ontzi baten irudia» agertu zitzaion euskal poesiari. Urtearen bigarren partean, gizonezkoak eta beternoak agertu zitzaizkigun poesian. Egin dezagun zerrenda: Jose Luis Otamendi (1959) 'Landura', Felipe Juaristi (1957) 'Harrizko gaitz hau' (Balea Zuria), Harkaitz Cano (1975) 'Pozaren erdia' (Susa), Angel Erro (1978) 'Poema liburu bat — irakurtzeko jarraibideak' (Erein).

Gainera bada beste aldiberekotasun bat hauen artean. Zortzi urte dira Felipe Juaristik bere azken poesia liburua argitaratu zuela ('Piztutako etxea', 2014), zortzi utzi ditu Harkaitz Canok bere azken emaitzatik igarotzen ('Malgu da gaua', 2014). Eta, hélas!, hamazazpi 'besterik ez' Angel Errok azken argitalpenetik ('Gorputzeko humoreak', 2005).

Argitalpenen aro biak

Gaurkoan ez da gure eginkizuna liburu bakoitzaren balioa aztertzea eta agerian uztea. Ira-

kurketa soziologikoa egin nahi nuke ohar pare bat adieraziz. Geroago eta garbiago daukat euskal edizioaren eremuan urtea, gure aspaldiko Axularren 'Gero' bezala, aro «bitan partitua eta berezia» ageri dela. Lehen aroa, otsailetik uztaile bitartekoa: idazle berrien eta zailtasunen garaia dugu. Bigarrena, Durangori begira hasten dena askoz ere beteago ageri da. Ordurako uzten dira izen nagusiak.

Arriskuen aroa eta arrakastaren garaia. 2022an argitaratu den poesiak horren adibide ederra eta garbia eman du. Agian horrek guztiak argi uzten du gurean eta periferiaren agerpenaren irudia. Lehen arokoak emakume gazteak dira, bigarrenekoak gizonezkoak. Haiek periferian, hauek erdigunean.

Baina ezusteak, aldiberekotasunak eta bat etortzeak, aurton poesian gertatu den moduan, lege iraunkorren agerpena besterik ez dira. Idazle gazte hasiberriak eta idazle ezagunak ispiluen aurrean gure argitalpen urtearen garai bietan bananduta.

Tren geralekuetan

PALOMA RODRIGUEZ-MIÑAMBRES

Zenbait idazle denbora hartzen dute lehen liburua argitaratzeko. Nolako istorioak asmatu nahi dituzten pentsatu bitartean idazketa tailerretan aritzen dira, literaturarekiko hartu-emana beti gogoan, berezko ahotsa findu eta seguritate edo konfiantza sentitu arte.

Horixe dirudi Izaskun Etxeberraren kasuak, literatur kritikak egiteaz gain Bergarako Idazle Eskolan ibili izan baita bere estreinako kontakizun-liburua plazaratu aurretik. Hamar ipuin hauetan antzematen da esperientzia horiek kontagintzaren mekanismoak menderatzeko aukera eman diotela. Bi zaitan banaturik ageri da: 'Ferrila' (bederatzi kontakizun) eta 'Eserlekuak' (kontakizun bakarra), eta istorio guztiak uztartzen dituzten elementu nagusiak dira tren eta Altsuondo herri irudikatua —Altsasuren antz handia duena.

Hurrenkera kronologikoa dute

kontakizunek; lehena, 1908an kokatua dago, eta azkena, 2010ean, XX. mendeko gertaera historikoak ehuntzen direlarik protagonisten biziera anonimoetan. Haien artean desberdintasun handiak dauden arren (mutikoak, emakume dotoreak, medikuak, jauntxoak alabak, burdinbideetako langileak), gizakiaren egonaria erakustea da istorioen bizkarrezurra, Tere Irastortzak hitzurrean dioenez. Tolesdura asko dituzte, esan ezin dutena daramatenak soinean: etsipena, nahiak, inoiz gauzatuko ez den itxaropena, bizipozenen lipar iheskorak, alegia, bizitzaren arrakalak ikusgai. Hala, bizimodu hobe bilatzearen jatorrizko lurraldea abandonatu behar izan duten pertsonaia azaltzen dira, esaterako, Galizia, Zamora edo Portugaletik etorri diren horiek zartatu egiten ditu bakardadeak ('San Joan Berde', 'Indaba zuria galeperrekin', 'Eguna eta gaua besarkatzen ez direnean').



ESATEN EZ DEN GUZTIAN
IZASKUN
ETXEBERRIA

Pamiela. 176 orr. 15 euro

Arestian aipatu bezala, begibistan dago narratzeko teknikak eta erregistro anitzak ongi ezagutzen dituela Etxeberriak, hortaz, gustura sartzen gara haren kontakizunetan, gure arre-ta harrapatzen dutelako.

Birritan sufritu

ARANTXA URRETABIZKAIA



S inesten dut pertsona heldu batek ezin diola den horren erantzukizun osoa txikitari jaso zuen heziketari leporatu. Ez dut ukatuko bizitzaren lehen urte horien eragina bizitza osoan, baina sinesten dut adin nagusitasunetik aurrera norberarena dela erantzukizun nagusia. Ez du balio esateak «hori da gurasoek irakatsi zidatena», bizitza osoan dugulako ikasteko aukera (agian, betebeharra), are zahartzaroan.

Izaera, aiurria, hor egongo da, baina hori ere molda daiteke, besterik ez bada ere maila txiki batean. Hori guztia onartuta ere, pertsonak bi eratakoak izan ohi dira: etorriko denaren aurrean jarrera baikorra dutenak eta jarrera ezkorrenako joerari amore ematen diotenak. Edalontzia erdi beteta ikusten dutenak, ala edalontzia beti erdi hutsik ikusten dutenak.

Jakin badakit ez dela erraza berez ateratzen zaizun horri amore ez ematea, baina onartezina iruditzen zait pentsatzea pertsonak geure burua moldatzeko gauza ez garela. Izan ere, gehienok egiten dugu hori maila batean edo bestean. Egiten, pentsatzen duguna ez da beti gurasoek edo sasoi eskolak irakatsitakoa, ezta gutxiagorik ere.

Sinesten dut zerbaitez gozatzeko itxaropena duena dagoeneko disfrutatzen ari dela espero duen horretaz. Eta, era berean, ikusmiran sufrikarioa duenak dagoeneko sufritzen duela agian gertatuko ez den horren eraginez. Birritan disfrutatuta, birritan sufritu, hori da aukera.

Eta, halere festa-zapuztaile ugari dugu beti inguruan eta, gainera, ospea du joera horrek. Norbaitek esaten badu munduaren, zure herriaren edo zure buruaren etorkizuna ilun dela, argia iragaritzen duenak baino sinesgarritasun handiagoa izango du. Ugariagoak dira, erabat, mundua okerrera doala pentsatzen dutenak, gainera, erremediorik gabe.

Ez naiz halakoak konbentzitzen ahalginduko, baina abisatzen diet, bitartean, nik birritan disfrutatzen dudala.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Bar Gloria

Nerea Ibarzabal. Susa

2 Sua erreko ez balu

Eneko Barberena. Txalaparta

3 Miñan

Ametz Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

4 Berriz zentauro

Katixa Agirre. Elkar

EZ FIKZIOA

1 Gaueko eztabaidak

Agustin Arrieta. Erein

2 BERPITZU

Kepa Junkera. Infernukoa auspoa

3 Mandamentu hipermodernoa

Iñigo Martinez. Elkar

4 Lur gainean itzal azpian

Leire Milikua. Susa